

## SU ARTIFIZIALEN 56. NAZIOARTEKO LEHIAKETA

ABUZTUAK 10etik 17ra

ALDERDI EDER 22:45

### 10\ PIROTECNIA VALECEA (Araba)

*Pirotecnica Valecea* Berentavillan (Araba) dagoen euskal familia enpresa da. 1876an sortutako enpresa hau, belaunaldiz belaunaldi igaro da familiako senideen artean. Bere kalitate kromatikoa, baita bere koreografia piromusikalak ere, enpresaren ikusizunetik handienak dira. Bere artikuluen eskaerak, egunero Europa erdia gurutzatzen dute Alemaniarentz, Belgikarentz, Italiarentz, Frantziarentz eta Portugalarentz. *Pirotecnica Valecea* gainbat lehiauketatan – Monakoko Piromusikalen Nazioarteko Lehiaketa, Iruñeko Nazioarteko Lehiaketa, Triesteko Nazioarteko Lehiaketa etab. – sari ugari irabazi dituzte. Donostian brontzezko maskorra irabazi zuten 2010. urtean. [www.pirotecnicavalecea.com](http://www.pirotecnicavalecea.com)

### 11\ CIELS EN FÊTE (Frantzia)

Motibazio handiko taldea da, teknika tradizionalak eta modernoak elkartzen dituena, segurtasunaz kezkatu eta ingurumena zainduz. Bere sorkuntzen originaltasunari, eta enpresaren filosofia eusten duen taldearen gaitasunari esker, edertasun eta kalitate handiko ikusizunak osatzen dituzte. 30 urteko esperientziak babestuta, enpresako zuzendari den Bruno Duvergerrek eta bere kolaboratzaileek lan handia egin dute bai Frantzian, bai atzerrian (Italia, Espainia, Malta, Alemania, Kanada, Arabiar Emirerri Batuak...). Parte-hartze eta garaipen ugari eskuratu dituzte nazioarteko lehiaketetan (Cannesen, Chantillyn, Montrealean...). Talde honek, France art et feux izenpean parte hartu zuen Donostiako lehiaketan 2008. urtean. [www.cielsevenfete.fr](http://www.cielsevenfete.fr)

### 12\ SCARSELLA FIREWORKS (Italia)

*Scarsella* enpresa 1969. urtean sortu zuen Giuseppe Scarsellak bere lagun eta bazkide Francizzirekin batera Clocchiaran (Altari). Urteetan zehar erakutsitako grinari, irmotasunari, sormenari eta profesionaltasunari esker, ezaguna egin da enpresa goi mailako kalitatezko su artifizialen diseinuan, exekuzioan eta produktzioan. Komplexutasun maila guztietako ikusizun nazionalen eta nazioartekoen plangintza eta exekuzio zainduan espezializatua, sari ugari jaso ditu. Aurtan, Donostian, lehen aldiz hartuko du parte Scarsellak. [www.scarsellafireworks.com](http://www.scarsellafireworks.com)

### 13\ PIROTECNIA VULCANO (Madril)

Laurogeigarren hamarkadan, Madrilen jaio zen *Vulcano* enpresa, José Luis Giménez Privado da bere sortzailea. Egun, Madrildo Villarejo de Salvanes-en dago kokatua. Egunez egun aritu da aukerak zabaltzen, eta, azkenean garrantzizko leku bat lortu du sail honetan, bai Madrilen bai Espainian zehar. *Pirotecnica Vulcano, S. L.* ikusizun tradizionaletan, piromusikaletan, nahiz sekuentzialetan dago espezializatua, baita Multimedia Ikusizunetan ere. Etxe honek egindako ibilbide luzeak eta jasotako sarien zerrenda jarioak – 36 parte hartze lehiaketetan, 18 lehen postu, 8 bigarren postu eta 2 hirugarren postu – bermatzen dute bere ikusizunen kalitatea. 2014. urtean 3. postua lortu zuen Donostian. [www.pirotecnicaivulcano.com](http://www.pirotecnicaivulcano.com)

## SU ARTIFIZIALAK MUNDUAN ZEHAR. MEXIKO

Mexikarrak ez badira ere su artifizialen asmatzaileak, ukazina da haien garrantzia eta inpaktu munduko merkatu piroteknikoan, kontuan hartuta su artifizialek presentzia handia dutela bertan ere. Mexikarrek ospakizun handi guztietan – publikoak edo pribatuak – erabiltzen dituzte su artifizialak.

Su artifizialek garai kolonialean egin zuten sarraldia herrialde horretan. Mexikok XIX. mendean lortu zuen independentzia, eta harrezkero izugarriko harrera izan zuen piroteknian. Piroteknia, gehienetan ospakizun erlijiosoetan erabiltzen bada ere, Mexikoko Independentziaren urteurrena izaten da, zalantzarik gabe, su artifizialak modu nabarmen batean erabiltzen diren abagunea.

Gaur egun, su artifizialen bigarren ekoizle handiena Latinoamerika da, eta Brasilen ondoren bigarren lekuan kokatzen da Mexiko, herrialde horretan piroteknia duen berealdiko garrantziaren erakusgarri.

Tultepec da piroteknien munduan sarraldia egin zuen Mexikoko aurreneko hiria. Gaur egun, su artifizialen hiri nagusizat dute, bere ibilbide historikoagatik ez ezik, produktio handiena duen hiria izateagatik ere; herrialde osoko produktioaren % 80 biltzen da bertan.

Elaborazio handia eskatzen duten su artifizialak sortzeagatik nabarmentzen da Mexiko, askotarikoak eta oso konplexuak baitira bertan lantzen dituzten efektu piroteknikoak. Zerura jaurtitzaren diren su artifizialez gain, herrialde horretan ohikoa da beste elementu pirotekniko batzuk ikustea, gazteluak edo zezen txikia, adibidez.

Gazteluak zurezko egiturak izan ohi dira, bengalez estaliak. Zezen txikia, berriz, gure zezen sukoaren antzekoa da. Tamaina desberdinetako egiturak dira, zezen formakoak, eta pertsonen eramateko diseinatuak. Normalean, zezen txikia mugitzen duen pertsona bertatik pasatzen diren atzetik ibiltzen da korrika. Hala ere, elementu landuena piromusikalak izaten jarraitzen du: musikarekin sinkronizatuta jaurtitzaren diren su artifizialez osatutako multzoa.

Urte askotan, eta gaur egun ere, eskuz egiten ziren eta egiten dira su artifizialak; familia bakoitzak bere teknika berezia du piroteknia sortzeko, eta isilean gordetzen du, gainerako familiak teknika horren jabe egin ez daitezen. Dena den, praktika horiek batere seguruak ez direnez eta arriskutsuak izan daitezkeenez, orain fabrikak sortzen hasi dira su artifizialak askoz ere modu segurua batean ekoizteko.



## SEGURTASUN NEURRIAK

Segurtasuna bermatu ahal izateko, bete itzazu hurrengo arauak:

Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzeari debekatua dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gaudituz hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.

Gauero, 22:15etik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitzaren inguruneetatik, eta bertara sartzeari debekatua egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.

Aparkalekuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte atera 23:30ak baino lehenago.

Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak ixtea eta elementu errekorak kentzea (arropa, toloak, hamakak...) gomendatzen da.

Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurtzea.

Jakinazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihotatik.

Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakiokete eta.

Gauero, ikusizuna amaizutakoan, udal zerbitzuak itxiketa inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoak bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagaririk aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultzatu hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, aldendu eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduradunari edo agintariari.

Adin txikiko haur baten arduraduna bazara: haurra galduko balitzaizu jakinarazi lezaiozu udaltzain bati. Behin eta berriro debekatu lezaiozu haurrari material piroteknikorik ukitzea, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.

Ikusizuna bitartean, gaixotu (lipotimiak, zorabioak eta abar) edo zauriren bat izan ezker, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.

Itsasoan: suak ikusteko badijara irteten diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.



**KONTROL PUNTUAK. Udaltzaingoa**  
PUNTOS DE CONTROL. Guardia Municipal

- 1 Nautiko / Náutico
- 2 Pilotosen Balkoia / Balcón de Pilotos
- 3 Garibai - Peñaflorida
- 4 Garibai - Andia
- 5 Hiribidea / Avenida - Hernani
- 6 Cervantes plaza
- 7 Hondartzako Esparrua / Acutado Playa
- 8 Londresko eskalerrak / Escaleras Londres
- 9 Ertziatzeko Arrapakak / Rampas Rotojes
- 10 Atletiko-ko eskalerrak / Escaleras Atlético
- 11 Apaizen pasealekua / Paseo de los Guras

**BALEARIDIAK**  
RECURSOS

- Osarritako ambulantzia
- Ambulancia básica
- Antzilatzaile medikuntzako
- Antzilatzaile medikuntzako
- Suhiltzaileak
- Bombarderos
- Beledeak
- PMA - APA
- Salbarmenduko ontzia
- Embarcación salvamento
- Sostengu logistikoko ontzia
- Embarcación apoyo logístico
- Piroteknika ibilgailuen Aparatuak
- Parking Vehículos Pirotecnia
- Nagibidearen marritua
- Informazioaren erakunde publikoak
- Información pública
- Información pública

**EBAKUZKO ETA SARTZEKO BIDEA**  
VIA DE ACCESO Y EVACUACIÓN

- Sarrera
- Irteera
- Saila
- Jaurtiketarako eremua
- Zona de lanzamiento
- Jendearentzako segurtasun eremua
- Área de seguridad pública
- Narri
- Tron

**LARRIALDEETARAKO TELEFONO ZENBAKIAK**  
TELÉFONOS DE EMERGENCIA

- 112 Ertzaintza - Ertzaintza
- 092 Udaltzaingoa - Policía Municipal

Jarri haurrei eskumuturreko bat identifikatzeko. Idatzi bertan bere izena eta, gaitzen bada, zer telefono zenbakira deitu behar den. Identifique a los menores con pulseras con su nombre y un número de teléfono al que llamar por si se pierdes.

#DONOSTIA  
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

56  
SU ARTIFIZIALEN  
NAZIOARTEKO  
LEHIAKETA

CONCURSO INTERNACIONAL  
DE FUEGOS ARTIFICIALES

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
2019  
ABUZTUA / AGOSTO  
10 - 17

